

Debabarreneko Ekintzaitza Plana 2023 - 2026

2023ko urria

Aurkibidea

DEBABARRENEKO EKINTZAIETZA PLANA

Debarreneko ekintzaitzaren testuingurua

Debarreneko Ekintzaitza Plana 2023-2026

1. Ekintzaitza Planaren testuingurua eta helburuak
2. Eskualdearen balio erantsiaren osagaiak
3. Debarreneko Ekintzaitza Plana

Debarreneko Ekintzailtza Plana 2023-2026

Ekintzailtza Plan hau, Debegesa eta Debarreneko ekintzailtza foroaren arteko lankidetzaz bidez gauzatu da. Horretarako, eskualdeko herri desberdinetako udaletxeekin eta eskualdeko ekintzailtza foroarekin elkarnean jardun da Debegesa, betiere, guztien sentsibilitateak kontuan hartuta eta eskualde-esparru partekatu bat diseinatzeko helburua buruan izanda.

1. Debabarreneko ekintzailetzaren testuingurua

Debarreneko ekintzaitzaren testuingurua

Debarrena industria usadio handiko eskualdea da, eta antzinatik ekintzaitza izaera handikoa. 50ko eta 70ko hamarkaden artean, industria garapen handia bizi izan zuen, metalaren eraldatze lanetan ziharduten enpresa txiki ugariaren babespean.

Eskualdeak Debegesa Garapen Agentziaren babesa izan du, 1985. urtean sortu zenetik; gainera, aipatzekoa da estatu mailako lehen garapen agentzia izan zela. Debegesaren helburua eskualdearen garapen jasangarria bultzatzea da, bere beharrak hobekuntza ekintzetan bilakatuz, eskualdeko **udaletxe, ekintzaile, enpresa eta banakako pertsoneri** laguntzeko, besteak beste. Horretarako, eskuragarri dituen giza baliabideak eta materialak erabiltzen ditu, eskualdearen balio erantsia eta proaktibitatea bultzatuz.

Eskualdearen 2023-2030 Plan Estrategikoaren barruan, ekintzaitza helburu estrategikoetako bat da, ekintza eta foku zehatzekin. Azken urteotan, ekintzaitzarekin lotutako ekintza desberdinak gauzatu diren arren, une honetan ez dago eskualde-estrategia zehaztuta, ezta helburu zehatzik ezarrita ere. Debegesa Garapen Agentziak, bere sorreratik, rol esanguratsua izan du eskualdean sortu diren enpresa ekimen desberdinei laguntzeko eta kalitatezko enpleguaren sorreran laguntzeko.

Debegesaz gain, eskualdeak baliabide desberdinak ditu esparru sozioekonomikoaren garapenerako:

- Lanbide Heziketako 6 ikastetxe publiko.
- 2 unibertsitate zentro.
- 2 parke teknologiko.
- 600 enpresa industrial baino gehiago.

Debarreneko ekintzaitzaren testuingurua

Eskualdeko Plan Estrategikoan, ondorengo ikuspegi zehatz hau zehaztu da 2030. urterako: Debarreneko eskualdeak Euskadiko 4. metropoli-eremua izan nahi du jarraian datozen oinarrien gainean:

- Ekosistema industrial, berrikuntza eta ezagutzaren sorkuntza sendoa, baita ekintzaitza espirtu sendoa ere.
- Eredu ekonomiko berritzaile eta jasagarria.
- Ingurune eta azpiegitura urbanoen, bizitokien eta aktibitate ekonomikoen berroneratzea.
- Bizitzeko eta lan egiteko erakargarria den eskualde-eremua sortzea.
- Eskualde identitate sendo bat sortzea, kohesioaren eta inklusio sozialaren ikuspuntutik.

Hori guztia lortzeko, eskualdeko eragile eta udalerrri guztien kolaborazioa eta kooperazioa lortu nahi da, profesionaltasuna eta ekintzaitza ehun enpresarialaren identifikatzaile bereizgarri izateko, kalitatezko enplegua eta aukera berdintasuna sustatzeko, eta sormena eta berrikuntza aurrerapen ekonomiko eta sozialaren giltza bilakatzeko.

Ekitatea, inklusioa eta gizarte-kohesioa eskualdeko ekintzen elementu eta eragile izan behar dira, baita herritarren parte-hartzea, gobernu ona eta gardentasuna ere.

Debarreneko ekintzaitzaren testuingurua

2023-2030 Plan Estrategikoan zehaztutako helburuei erantzuteko, hainbat proiektu zehazten dira jarraian, ekintzaitzak pisu esanguratsua izango duelarik:

1. Debarrena Barruti industrialia - BPTD
2. **Debarrena, Barruti ekintzaile eta berritzailea**
3. Debarrena, Birgaitze eta Berroneratze integrala Birsortze eredu
4. Debarrena berdez mugitzen da! Euskadiko lehen mugikortasun jasangarriko hiriarteko sarea
5. Debarrena Natura (Deba ibaia lurraldearen ardatz egituratzaile gisa)
6. Debarrena, Eredu energetiko jasangarria
7. Debarrena, Sormen eskualdea
8. Debarrena, Zahartze aktibo eta osasungarria
9. “4. Metropoli Eremua” marka eraikitzea
10. Debarrena Talent

Debarreneko ekintzailtzaren testuingurua

10 proiektu transformatzaileraren artean, batzuk izaera ekintzailea dutela kontuan izan arren, garbi ikusten dira **“2. Debarrena, Barruti ekintzailea eta berritzailea”** proiektuaren ekintza eta ildo zehatzak:

- 1. Hub BPTD:** helburu nagusia ekintzailtza espazioak eta azpiegiturak kokatzeko eta kudeatzeko estrategia zehaztea izango da, udal desberdinen laguntzarekin; Hub BPTD diseinatzea eta horren edukia konfiguratzeko, enpresen arteko lankidetzaren bidez konponbide teknologikoak sortzen lagunduko duen programa diseinatu eta abian jartzea, eta espazio/argazki digital bat garatzea ekosistemako eragile guztien topagune gisa.
- 2. BPTD industria ekintzailtzaren programa:** Debarreneko ekintzailtza estrategia eta ekintzen plana diseinatu eta hedatzea; “Make IN” programa indartzea; ekintzaileak erakartzeko prestakuntza eskaintza bat zabaltzea, ekintzailtza prozesuaren fase guztiak barne hartzen dituena; enpresak erakartzeko eta errotzeko laguntza programa bat antolatzea; enpresek ekintzailtza barneko programak garatu ahal izateko erakartze programa bat abian jartzea; eta BPTD inbertsio funts bat sortzea.
- 3. Ekintzailtza eta Berrikuntza espazioak sortzea eta sustatzea:** eskualde rola sortzea; enpresak inkubatzeko eta sendotzeko espazio berriak sortzea, Hub BPTDrekin lotuta; eta ekintzailtzako espazioak eta azpiegiturak aktibatzea eta sustatzea.
- 4. Jarduera ekonomikoaren dibertsifikazioa:** lehen sektorea biziberritzeko programa; sektorearen egoerari buruzko hausnarketa eta diagnostikoa egitea; landa-ingurunea, eta landa-ingurune eta nekazaritza-ingurune ekosistema-zerbitzuak babesteko laguntza ekintzak gauzatzea eta zehaztea; lehen sektoreko jarduera ekonomikoari eusten laguntzea; eta lehen sektoreko enpresak hobetzeko eta profesionalizatzeko jarduerak bultzatzea.

2. Debabarreneko Ekintzailetza Plana 2023-2026

Debarreneko Ekintzailtza Plana 2023-2026

Ekintzailtza eskualdeko Plan Estrategikoaren funtsezko ardatza izanik, eskualdeko Ekintzailtza Plan bat sortzea erabaki da, eskuragarri dauden baliabideak batu eta ekintzailtza berritzailean eskualde erreferente izateko helburuak eta estrategiak argi eta garbi definitzeko.

Ekintzailtza Plana zeharkako bost jarduera lerrok osatzen dute, baita helburu eta ekintza zehatzak dituzten intereseko hiru nitxok ere; hala ere, planaren hausnarketan eta diseinuan, Debarreneko eskualdearen balio erantsiko elementu bereizgarriak identifikatu dira, planaren helburu jakin bati erantzuten ez diotenak, baina funtsezkoak direnak eskualdearen garapenean eta ekintzailtzari zeharka eman nahi zaion ikuspegian.

- **Agenteen arteko sarea eta konexio:** eragile interesgarrien arteko harremanak sortzean eta sendotzean jokua jartzea erabaki da, sinergiak sortuz eta indarrak batuz, eskualdea sendotzeko helburuarekin.
- **Barneko ekintzailtza:** Ekintzailtza Plan honen balio-proposamenak ekintzailtza barneratzea izango du ardatz, eskualdeko enpresa sarearen jarduera eboluzionatzeko negozio-ideia eta proiektu berriak sortzeko palanka gisa.
- **Industria eta ekintzailtza industrialia:** industria sektorea eskualdearentzat aukera eta garrantzi handikoa izanik, ekintzailtza bultzatzeko nitxo garrantzitsu gisa identifikatzen da; ez bakarrik hor sor ditzakeen aukerengatik, baizik eta eskualde honek harekiko duen ibilbideagatik, ibilbide historikoagatik eta ezagutzagatik.
- **Emakumeen ekintzailtza:** eskualdeko Ekintzailtza Planean, emakumeen talentu ekintzailean arreta berezia jarri nahi izan da, eta, aldi berean, tradizioagatik eta kulturagatik zailtasun handienak izan ditzaketan sektoreetara sartzea erraztu nahi izan da.

Debarreneko Ekintzailtza Plana 2023-2026

Debarreneko Ekintzailtza Plana eskualdeko behar eta interes nagusiei erantzuteko bost ildo estrategikok edo zeharkako erronkek osatzen dute, baita eskualdearen interesen eta gaitasunen arabera lehenetsitako hiru nitxok ere. Bestalde, jarduerak zehatzagoak dira nitxo eta sektoreetan, ekintzailtza aukerak sustatzeko eta handitzeko, eta horietan erakartzeko edota sentsibilizatzeko.

Horiek guztiak bat datoz 2023-2030 Plan Estrategikoarekin, eta honako hauek dira identifikatutako ildo estrategikoak eta nitxoak:

Honako bost hauek dira identifikatutako ildo estrategikoak:

1. **Eskualde ekintzaile gisa posizionatzea**
2. **Dibulgazioa eta sentsibilizazioa**
3. **Talentu ekintzailea erakartzea**
4. **Jasangarritasuna**
5. **Barne ekintzailtza**

Hauek dira identifikatu diren hiru jarduera nitxoak:

1. **Industria**
2. **KSI, Debarrena Sormena**
3. **Osasuna**

Debarreneko Ekintzailtza Plana 2023-2026

Hurrengo atalean, bost ildo estrategikoak, helburuak eta jardun ildo nagusiak azaltzen dira. I. eranskinean, plan osoa aurki daiteke, ekintza zehatzetan, arduradunetan eta denboran zehar banatutako kronograma baten bidez banatua.

1. Eskualde ekintzaile gisa posizionatzea

Helburua

1.1. Eskualdea ekintzailtzaren esparruan erreferente eta eskualde erakargarri bihurtzea, osagai berritzaileekin.

Jarduera-ildoak

1.1.1. Eskualdeko ekintzailtza strategiaren berri ematea, Ekintzailtza Plana ekosistemaren funtsezko kanal eta eragileen bidez ezagutarazteko.

1.1.2. Eskualdeko Ekintzailtza Foroa indartzea, eskualdeko eragileen indarrak batzeko eta plana partekatutako beharretatik eta estrategiatik bultzatzeko.

1.1.3. Programa eta zerbitzuen bidez ekintzaileei prozesu osoan laguntzea (ideiak sortzen, garatzen, merkatura ateratzen, finantzaketa bilatzen, hazten eta garatzen), ekintzaileentzako laguntza eta erakarpen-ingurune bat sortzeko, egungo bidea esperientzia osoago, gidatuago eta eskualde ikuspegi bateratu batetik abiatuta.

1.1.4. Eskualdea beste lurralde batzuetan ezagutaraztea, ekintzailtzaren esparruan erreferente gisa, arrakasta kasuen eta erreferentziazko programen bidez, eskualdea kokatuz eta ekintzaileentzat ingurune erakargarri eta onuragarria sortuz.

1.1.5. Eskualdea tokiko eta beste lurralde batzuetako eragileekin konektatzea, ekosistema zabalduz, bai ekitaldien bidez, bai ikaskuntza saioen bidez, elementu eta ikaskuntza interesgarriak identifikatuz, eskualdera estrapolatu ahal izateko.

1.1.6. Eskualdeko edota beste lurralde batzuetako ekintzaileen eta gainerako eragileen artean loturak sortzea, ikaskuntzak eta beharrak partekatuz eta lankidetzak aukerak eta proiektuak sortuz.

Debarreneko Ekintzailtza Plana 2023-2026

2. Dibulgazioa eta sentsibilizazioa

Helburua

2.1. Eskualdeko ekintzailtza zabaltzea, sentsibilizatzea eta sustatzea, ekintzailtza estrategia bateratu eta definitu bati jarraituz.

Jarduera-ildoak

2.1.1. Eskualdeko egungo ekimen ekintzaileak ezagutaraztea, proiektu ekintzaileak eta barne ekintzaileak identifikatuz eta Pertsona Ekintzailearen Egunaren bidez bultzatuz. Bertan, proiektuak azaldu eta ezagutaraziko dira, eta intereseko eragileentzat (enpresak, pertsona ekintzaileak, ikastetxeak, erakundeak, etab.) irakaskuntza, sentsibilizazio, konexio eta inspirazio gune bat sortuko da.

2.1.2. Pertsona ekintzaile potentzialak gaitzea eta babestea, ekintzailtza bultzatuz eta proiektu ekintzaile bati ekiteko interesa duten pertsonentzako trebakuntza eskainiz, banakako laguntza bidez.

2.1.3. Ikastetxeekin lankidetzan aritzea eskualdeko ekintzailtzaren etorkizunerako, ikastetxeetatik ekintzailtza bultzatu ahal izateko beharrezko laguntza eskainiz.

Helburua

2.2. Ekintzaileei fase guztietan laguntza osoa eskaintzea.

Jarduera-ildoak

2.2.1. Pertsona ekintzaileek beren esperientziak partekatzeko eta beste batzuen inspirazio iturri izateko espazioak sortzea, Pertsona Ekintzailearen Egunaren barruan.

2.2.2. Emakume ekintzaileei zuzendutako programa bat sortzea, hura sustatzeko, sentsibilizazioan lan egiteko eta erreferenteak sortzeko.

Debarreneko Ekintzailetza Plana 2023-2026

3. Talentu ekintzailea erakartzea

Helburua

3.1. Eskualdean balio erantsia, teknologikoa eta etorkizuneko duen ekintzailetza babestea eta bultzatzea.

Jarduera-ildoak

3.1.1. Eskualdean ekintzailetza bultzatzeko programa eta zerbitzu erakargarriak eskaintzea, bete gabeko behar zehatzak identifikatuz, etorkizuneko joerei erantzunez eta talentu ekintzailea erakartzeko eta bultzatzeko interesa duten eragileekin lankidetzan arituz.

3.1.2. Eskualdeko ekintzaileen eta enpresen arteko loturak sortzea eta etorkizuneko beharrak identifikatzea, proiektuak eskualdeko merkatura bideratu ahal izateko, gaur egungo erronkak konponduz eta eskualdeko nahiz eskualde kanpoko ekintzaileei merkatuarekiko lotura eskainiz.

Helburua

3.2. Talentua, ideiak eta startup-ak erakartzea, enpresa eta eskualde erronkei erantzuteko.

Jarduera-ildoak

3.2.1. Eskualdeak beste lurralde batzuetan dituen erronkak/beharrak ezagutaraztea, ekintzailetzarako alderdi erakargarri gisa, talentu ekintzailea erakarriz eta eskualdeari egungo erronketan erantzun eta konponbide berritzailea emanez.

3.2.2. Ekintzailetzarako eta berrikuntzarako espazioak sortzea, talentuak, ideiek eta startup-ek eskualdearen potentziala ikus dezaten, funtsezko baliabideak eskainiz eta loturak, networkinga eta tokiko eragileen sarea sustatuz.

Debarreneko Ekintzailtza Plana 2023-2026

4. Jasangarritasuna

Helburua

4.1. Sentsibilizatzea eta kontzientziatzea, industria sektorean jasangarritasuna, energia garbiak eta mugikortasun iraunkorra sustatzen duten proiektuak sortzeko.

Jarduera-ildoak

4.1.1. Tokiko enpresei laguntzea industriako iraunkortasun aukerei buruzko trebakuntzan, formakuntza zehatzen eskaintza sortuaz.

4.1.2. Merkatuan proiektu horiek nola lantzen ari diren ulertzeko inspirazio gisa balio duten kasuak identifikatzea, eskualdeko balioa sortu ahal izateko.

Helburua

4.2. Trantsizio energetikoa sustatu eta Debarrena eskualde berdeago baterantz eboluzionatzen lagunduko duten lankidetzak proiektuak sortzea.

Jarduera-ildoak

4.2.1. Tokiko enpresei iraunkortasunaren arloan dituzten erronkak identifikatzen laguntzea, landu beharreko eremu potentzialak identifikatzeko, enpresen arteko lana sustatuz, ezagutza trukatzuz eta trantsizio energetikoa bultzatuko duten lankidetzak-proiektuak eta proiektu ekintzaileak identifikatuz.

4.2.2. Enpresak berak modu autonomoan konpontzeko gai ez diren **iraunkortasun erronkak konpontzen lagunduko** duten irtenbide ekintzaileak garatzeko laguntza, eskualdeko sarearen eta ekosistemaren konexioen bidez.

Debarreneko Ekintzailtza Plana 2023-2026

5. Barne ekintzailtza

Helburua

5.1. Enpresei zeharkako laguntza eskaintzea, barne ekintzailtzaren garapenean.

Jarduera-ildoak

5.1.1. Eskualdeko enpresei laguntza ematea, prestakuntza eta programa espezifikoaren bidez, ekintzailtza-prozesua sustatu eta errazteko. Gaur egun dauden programak erakunde berrietara irekitzea baloratzea, hala nola, BPTD elkartearen enpresa ekintzailearen programara.

5.1.2. Enpresetan kultura ekintzailea sustatzea eta lantzea, kulturari buruzko proiektuak garatuz, finantzaketa edo aholkularitza-orduak eskuratuz.

Helburua

5.2. Eskualdeko sare eta ekosistema aktibo ekintzailea sortzea.

Jarduera-ildoak

5.2.1. Enpresen eta proiektu ekintzaileen edota kultura ekintzailearen arteko loturak sortzea, negozio berrien sorrera bultzatzeko eta loturak sustatzeko, enpresa foro baten bidez, eta enpresen arteko partzuergoko proiektuak identifikatzeko urteko dinamiken bidez.

Debarreneko Ekintzailtza Plana 2023-2026

Aurrerago aipatu den bezala, eskualdeko ekintzailtzari buruzko behar orokorreari erantzuten dieten zeharkako ildo estrategikoak identifikatzeaz gain, hiru interes nitxo estrategiko identifikatu dira, eta horiek beren plan zehatza, helburuak eta jarduera-ildoak dituzte. Ekintzak, arduradunak eta banaketa denboran zehar, l. eranskinean aurki daitezke.

6. Industria

Helburua

6.1. Kolaboratu nahi duten enpresei laguntzea, eta startup eta proiektu ekintzaileen bidez teknologia txertatzea.

Jarduera-ildoak

6.1.1. Eskualdeko enpresen eta startup-en arteko loturak sortzea, egungo eta etorkizuneko erronkei erantzun ahal izateko, enpresetan lehiakortasuna irabaziz eta industria eta eskualdea aberastuz.

6.1.2. Eskualdeko enpresen eta ikastetxeen artean loturak sortzea, enpresen egungo eta etorkizuneko erronkei irtenbidea emateko eta talentua eskualdeko ekosistema industrialera hurbiltzeko.

Helburua

6.2. Industria-jarduera berria sortzen laguntzea, BPTD enpresa-elkartearen bidez.

Jarduera-ildoak

6.2.1. Eskualdeko industria-negozioko aukerak identifikatzea, BPTDko kide diren enpresen artean lankidetzaren proiektu berriak bultzatuz eta sortuz, lan saio espezifikoen bidez.

6.2.2. Proiektu berri horien negozio plana egitea: merkatua, lankidetzaren ereduak, finantzaketa iturriak... aztertuta.

6.2.3 Debarrenean proiektu horiek ezartzeko beharrezkoak diren **azpiegiturak identifikatzea**, inplikaturako udalekin lankidetzan.

Debarreneko Ekintzailtza Plana 2023-2026

Identifikatutako azken bi nitxo hauen helburua ekintzailtza aukera berriak sortzea da, eskualdeak aurre egin beharreko erronkei erantzuteko, dinamismoak galtzea edota biztanleriaren zahartzeari egokitzea, besteak beste. Hurrengo bi sektoreak, industria sektorearekin alderatuta, berriak dira; beraz, antzinasun txikiagoa izanik, ekintza murriztagoak eta sentsibilizaziora bideratuagoak egitea aurreikusten da Plan honetan. Era horretara, sektore horiek hazten lagundu nahi da, euren bilakera prozesua aintzat hartuta: sentsibilizazioa, ideiak identifikatzea, ekintzaileei prestakuntza ematea, negozio ideiak aztertzen laguntzea, lankidetzaren sareak sortzea...

7. KSI, Debarrena Sormena

Helburua

7.1. Debarrena Sormena: eskualdeko Kultura eta Sormen Industria (KSI) ezagutaraztea, jarduera ekonomikoa sortzeko iturri gisa.

Jarduera-ildoak

7.1.1. Lurraldean, diseinuaren alderdi desberdinak azalduko dituen kanpaina bat sortzea, sektorean dauden jarduerak eta aukerak erakutsiz eta ikusaraziz. Eskualdean miaketarako nitxo bat denez eta ibilbide luzerik ez duenez, ibilbidea hasteko sentsibilizatu eta ezagutarazi egiten dira sektoreko ekintzailtza aukera errealak, baita dauden proiektuak eta ekimenak identifikatu ere.

7.1.2 Ekintzaileei eta sektore honetako enpresei zerbitzu espezializatuak eskaintzen has gintezkeen **eragileak identifikatzea**, lankidetzaren sare bat sortzeko eta baliabideen erabileran eraginkorrak izateko. Gainera, erakunde horiekin lankidetzan, programak diseinatzeko aukera baloratuko dugu.

Debarreneko Ekintzailtza Plana 2023-2026

Helburua

7.2. Diseinuaren esparruan talentu berria erakartzea sustatzea.

Jarduera-ildoak

7.2.1. Ikastetxeekin lankidetzan aritzea, eskualdeko enpresen erronkei erantzuteko talentua sortzeko beharrezkoak diren programak identifikatu eta diseinatzeko. Behin eskualdeko enpresen benetako erronkak identifikatuta egonda, talentua erakartzea, interesa sortzea eta ekintzailtza aukerak identifikatzea merkatura bideratuko dira, eta hori erakargarria izango da, bai ekintzaileentzat, bai ikastetxeetan landu beharreko proiektuentzat.

7.2.2. Eskualdeko benetako erronkei irtenbidea emango dieten **irtenbide eta proiektu ekintzaileak identifikatzeko programak sortzea**. Lehiaketa baten bidez, ideiak eta proiektuak arinago sortu eta erakarriko dira, eskualde eta bertako enpresak sektorearen erreferente eta inspirazio gisa kokatuz.

7. KSI, Debarrena Sormena

Helburua

7.3. KSIen sektorean ekintzailtza aukera berriak sortzea.

Jarduera-ildoak

7.3.1. KSIen sektorean proiektu ekintzaile berriak sortzen laguntzea, sektorean negozio berriak sortzea bultzatzeko helburuarekin, funtsezkoa izango baita. Sektorearen beharrak eta potentziala aztertuko dira, eta, horrela, benetako premiei erantzungo dien balio bereizgarrien proposamena sortuko da.

7.3.2. KSIen ekosistema eta eragileen sarea sortzea, negozio aukera berriak eta eskualdeko ekintzaileen, enpresen eta eragileen arteko lankidetzak sustatuz.

Debarreneko Ekintzailtza Plana 2023-2026

8. Zahartzearen eta osasunaren sektorea (*)

Helburua

8.1. Eskualdeko enpresei osasun arloan ekiteko laguntza ematea (Silver Economy, kirola, biotech, etab.).

Jarduera-ildoak

8.1.1. Enpresei laguntza ematea, baliabide eta programa desberdinen bidez, osasunaren eremuan ekintzailtza barneratzea bultzatzea dadin, merkatuan badiarelako erantzun eta irtebide berritzaileak behar dituzten aukerak eta beharrak.

8.1.2 Jarduera horiek eskualdean hedatzen lagunduko dituzten erakunde laguntzaileen sare bat sortzea; hala nola, Bic Gipuzkoa, prestakuntza zentroak, Adinberri...

Helburua

8.2. Debarrena osasun-sektoreko konponbide eta proiektuetarako eskualde erakargarri bihurtuko duten espazioak, programak eta laguntzak sortzea.

Jarduera-ildoak

8.2.1. Eskualdeko osasun-sektorearekin lotutako ekimen ekintzaileak zabaltzea, osasun arloko proiektuak eta beharrak lehen aldiz identifikatuz.

8.2.2 Debarrena, biztanleria segmentu horri zuzendutako mota horretako konponbideak eta produktuak erakusteko eta probatzeko gune bat izan daitekeen aztertzea.

(*) 2030 Eskualdeko Plan Estrategikoan “zahartze aktibo eta osasungarrirako” berriazko ildo bat jasotzen da, ekintzailtzarekin lotuta dagoena. Eremu hori osasunera zabaltzen dugu, baina biztanleriaren segmentu horretan jartzen dugu arreta.

Eskerrik asko!
¡Muchas gracias!